



**Gatikako udala**

Bizkaia

**2013ko urriaren 4ko PREMIAZKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA**

**DEIALDIA: LEHENA  
HASIERA ORDUA: 15.13  
BUKAERA ORDUA: 15.15**

Bertaratutakoak:

- 1.- Jesus Maria Fullaondo Alzibar
- 2.- Vanesa Alvarez Zorrilla.
- 3.- Naiara Beldarrain Fullaondo.
- 4.- Unai Arrizabalaga
- 5.- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga
- 6.- Unai Arruza Elorduy.

Ez dira etorri baina horretarako arrazoiak emon dituzte: Mikel Larrazabal Zurbanobeaskoetxea; Maite Lekanda Bilbao eta Leixuri Arrizabalaga Arruza.

Idazkaria: Elena M. Gonzalez.

Aztergaiak:

**1. Gatikako udalaren adierazpena.**

Aho batez onartu egin da (GTI bi baiezkotoak, Bildu bi baiezkotoak eta PNV bi baiezkotoak).

15.15ean amaitu egin da premiazko osoko bilkura hau.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**



## Gatikako udala

Bizkaia

### GATIKAKO UDALAREN ADIERAZPENA

Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken urteetan. Aldaketa politiko sakona izan da ETA erakundeak erabaki eta adierazi izana 2011ko urriaren 20an bere jarduera armatuaren behin betiko amaiera.

Herri hau, giza eskubide guztien onarpenean eta defentsan oinarrituz, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz eraiki behar dela, herri honen gehiengoak aspaldi egindako hautua da.

Aste honetan, "Herrira" plataformako kideak atxilotu dituzte. "Dena ETA da" tesiari utsiz egin dituzte atxiloketak, Euskal Herrian bake prozesua bultzatu eta finkatzeko bidean atzeraldia suposatzen dutelarik.

Euskal Herriko erakundeek eta gizartearen gehiengo nabarmenak euskal presoak jasaten ari diren oinarrizko eskubideen urraketak behin eta berriz salatu dituzte, legeak, zuzenbide internazionalak eta giza eskubideen deklarazioak presoei aitortzen dizkien eskubideak defendatzea zilegia dela adieraziz.

Oinarrizko eskubideen etengabeko zapalketak ez dira inolaz ere lagungarri gure Herriak behar duen soluzio bilaketarako.

Erakunde politikoaren ilegalizazio prozesuek eten egiten dituzte oinarrizko eskubide diren ideologia, adierazpen, elkartzeko eta partehartzeko aldarrikapen demokratikoak; euskal gizartearen aniztasun politikoari zor zaion errespetuari eragiten diote zuzen zuzenean, eta baita gure herriko elkarbizitzari ere; eta guztiz urruntzen gaituzte euskal gizarteak behin eta berriz eskatzen duen normalizazio politiko eszenatokitatik.

Horregatik Gatikako Udalak:

1. Espainiar Gobernuaren estrategia politiko-judiziala salatzen du, salbuespenezko legediak oinarri hartuta, zenbait erakunde judizial, Auzitegi Nazionala kasu, erabiltzen dituelako "dena ETA da" tesia aktibatuzko, ETak duela ia bi urte ekintza armatuaren behin betiko etena aldarrikatu zuela jakitun izan arren, eta ETaren ekintzak irauten duen ideia berreskuratu nahian dabilelako, aipatu erakunde horren erabakiaren irrebertsibilitatea eta egiazkotasuna egiaztatuzko ardura politikoa bere gain hartu beharrean, eta bake prozesua bultzatu beharrean.
2. Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoaren errespetua eta "Herrira" ren baitan euskal presoaren oinarrizko eskubideen alde lanean ari ziren atxilotutako persona guztien askatasuna eskatzen du.

Gatikan, 2013ko urriaren 4a.